




GAZTENPATIA PROIEKTUA: PRAKTIKAK GARAPENERAKO LANKIDETZAN

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Gradu Bikoitza (HEFA II)

ZER DA?

- Gaztenpatia Unibertsitateko praktikak eta gradu amaierako lanak (GRALak) garapenerako lankidetzan egiteko programaren parte da.
- UPV/EHUK 2003an abian jarritako programa da, abiapuntua izanik unibertsitatearen eginkizuna dela munduan dauden desparekotasunez jabetzen diren profesionalak heztea eta horietan ekarpena egitea.

ZEIN AUKERA DUGU HEFA II-N?

- 3. mailako praktika curricularrak (Practicum II) Gobernuz Kanpoko Erakunde batean egitea.
- Egun 2. mailan dauden ikasleek egin dezakete eskaera:
 - Haur Hezkuntza: 2 plaza
 - Lehen Hezkuntza: 3 plaza
 - Gradu Bikoitza: 1 plaza

*Plaza kopurua behin-behinekoa da, harrera erakundean onartu beharko lukete

PRAKTIKAK NON?

Asociación Comunal Segundo Montes (El Salvador)

- Meanguera udalerria, Morazán departamendua

<https://www.ehu.eus/eu/web/oficop/gaztenpatia-morazan>

<https://csmmemoriahistorica.wordpress.com/>

DIRU-LAGUNTZA

- UPV/ EHU eta Euskal Fondoak egindako ekarpenekin osatutako fondo ekonomikoa: ikasle partaideei laguntza ematea osasun aseguru eta bidaia ordaintzeko.
- Diru hori esleitzeko, UPV/EHUK urtean 3 deialdi egiten ditu: urrian eta urtarrilean, **curriculumeko praktikak edo GRALa egitera urtariletik aurrera doazen ikasleentzat**; apirilean, udan doazenentzat borondatezko praktikak edo GRALa egitera

DERRIGORREZKO IKASTAROA

- Ikasle partaideak nahitaez egin beharko du bere ikastegian Garapenari eta Lankidetzari buruz urtero ematen den [ikastaro monografikoa](#), eta, era berean, Gaztenpatiaren prestakuntza saio berezietara ere joan beharko da bidaian joan aurretik.
- Ikastaroaren egitura:
 - 20 ordu ikastegian lantzen diren gaiak
 - 4 ordu komunikazioa eta lankidetzari buruzkoak
 - Gainontzeko 26 orduetan (guztiak edo zati bat), helmuga diren herrialdeei, hango kulturari, tokiko erakundeek egiten dituzten proiektuei eta abarri buruzko irakurraldiak, gogoetak, tailerrak, aurkezpenak edo lanak

KRONOGRAMA

- **Eskaera:** Maiatzaren 9a baino lehen
- **Behin-behineko esleipena:** maiatzaren 30a (maiatzaren 9ra bitarteko batz besteko kalifikazioaren arabera)
- **Bilera informatiboa:** Ekainaren 4ean
- **Diru-laguntzaren eskaera:** Zehazteke (deialdia ateratzen denean jakinaraziko da)
- **Data:** PII garaian / otsailak 23-apirilak 26, aste santua tartean